



## 637 parte-hartzaile izan ditu Tolosako XX. Ero-Etxe elkartearen krosak

**IRABAZLEAK** ▶ Unai Arroyo, Josu Ibarbia, Idoia Ezeiza, Maddi Garikano, Joanes Garikano eta Marta Alonso ▶ 2



Irabazleak, lasterketaren amaieran. NEREA LIZARTZA



M. SOROA

## Hiri hondakinei buruzko erakusketa Kultur Etxean

**IBARRA** ▶ «Konponbidearen zati bat gizartearen esku dagoela» ohartarazi nahi du 'Amesgaiztorik ez!' erakusketak ▶ 6

### TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

## 2006a urte larria izan da LABen ustez lan istripuei dagokionez

Konzentrazioa deitu du sindikatuak bihar Tolosako Triangulo plazan ▶ 3

### HERNIALDE ▶

## Santa Kruz apaizaren inguruko argazkiak ikusgai, Ostatuan

Apaizak Kolonbia sortu zuen herriko argazkiak biltzen ditu, bestek beste ▶ 4

### LEITZA ▶

## Bengoetxea indartsu, Binakako Txapelketan

Irujo eta Goñiren aurka galdu arren ▶ 7

## KIROLAK ▶

# 637 gaztetzok hartu dute parte krosean

Ero-Etxe Elkarteak antolatzen duen lasterketa jokatu zen igande goizean

## ESTI EZEIZA

20 urte bete dira iada Ero Etxe elkarte krosa antolatzen hasi zenetik. Halaber, urtero 600 haur baino gehiagok hartzen dute parte proba honetan. Aurtengoan 637 izan dira denera, horietatik 387 mutilak eta gaitortzeko 250ak neskek. Elkar-tekoek azaldu dutenaren arabera, «giro ona izan zen ekitaldian eta jende ugari hurbildu zen ekitaldiaz gozatzeko». Eguraldia lagun, kirola eta jaia uzartu ziren beste behin ere igande goizean. Tolosako kale-etatik barna ibili ziren lasterka gaztetzokak.

Besteak beste, Laskorain, Samaniego, Hirukide eta Anoetako herri eskolako ikasleek hartu zuten parte. Denera, sei taldetan banatu ziren parte-

## IRABAZLEAK ▶

## NESKAK

## Benjaminak

1. Idoia Ezeiza
2. Helena Zeberio

## Alebinak

1. Marta Alonso
2. Ilenia Morales

## Infantilak

1. Maddi Garikano
2. Ane Elizegi

## MUTILAK

## Benjaminak

1. Joanes Garikano
2. Joseba Olaetxea

## Alebinak

1. Josu Ibarbia
2. Oier Calvillo

## Infantilak

1. Unai Arroyo
2. Ander Ortiz



637 haurrek hartu zuten parte XX edizio honetan. N. LIZARTZA



Lore sortak eta dominak banatu zituzten irabazleen artean. N. LIZARTZA

hartzailak adinaren eta generoaren arabera, ibilbidea ere ezberdina izan zelarik hauen-tzat. Lasterketaren ondoren

sari banaketa egin zen. Hemen, Udal ordezkariak lore sortak eta dominak banatu zizkieten irabazleei.

## ARETO FUTBOLA ▶

## Piti Paskualen aurka 6-3 galdu du Laskorainek

## ERREDAKZIOA

4 puntuko tarreak banatzen zituen Nazional B mailako bigarren eta bosgarren sailkatuak beren indarrak neurtu zituzten lehengo larunbatean Basauriko kiroldegian. Laskorainekoentzat ezinbestekoa zen ez galtzea, 4 puntuko alde hori murriztu edo gutxienez mantentzeko. Gogor jokatu arrenez inaz zuten garaipena eskuratu.

Partidaren hasiera ikusita, bazurdiaren garaipena erraz lotuko zutela basauritarrek. Izan ere, lehenengo bi minutuetan sartu zuten lehenengo gola. Dena den, ondorengo minutuetan bizkaitarren erasoei ongi eutsi zieten tolosarrek, eta kontraerasoan irten ziren aukera zuten bakoitzean. Azken hauetako batean Altunak bi eta batekoa eskuratu zuen ezkerkada indartsu baten bitartez. Markagailu azpitik joan arren, moraki aurretik aldagelaratu ziren horitxoak. Hasiera txar bati buelta eman eta garaipenean sinesten hasiak ziren.

## Nesken garaipena

Bigarren zatian aukerak bi atean ikusi ahal izan ziren, baina etxekoek asmatu zuten lehen gola sartzen, hiru eta batekoa ezarri markagailuan. Hala ere, Laskorainek berehala erreaktionatzeko gai izan ziren eta Saldias kapitainak bere ezker oinaren puntarekin gola sartu zuen. Honen ondoren ikastolakok izan zuten aukerarik norghegiagoka berdintzeko, baina asmatu zutenak berri ere Pitikoak izan ziren lau eta bikoa lortuz. Azken minutuetan Alonso atezain-jokalari moduan kantaratu zuen Egizabalek, baina egoera hau aprobetxatu zuena etxeko taldea izan zen beren jokalekutik atezainik gabeko atea zulatuz. Saldiasen berri ere aldea murriztu zuen baina bizkaitarrek lortu zuten arratsaldeko azken gola.

Harrobiari dagokionez, Jorge Mourinhoren mutilek 5 eta 1 galdu zuten Legorretan txapelketako liderraren aurka. Kirol Elkarte taldeen artean, garaipena lortu zuten bakarrak neskek izan ziren. Hauen etxetik kanpo jokatu zuten, MCMren aurka eta 2-4ko emaitzarekin itzuli ziren.

## FUTBOLA ▶

## 2-1 galdu du Tolosak Zallaren aurkako partidari

Asteburuko norghegiagokaren ondoren, sailkapeneko lehenengo postuan da talde bizkaitarra; hurrengo partida etxean jokatu dute urdinek, Eibar B izango dutelarik aurkari

## ERREDAKZIOA

Bi eta bat galdu zuen igandean Tolosak Zallaren aurka Landaberrin. Partida honen ondoren, sailkapeneko lehenengo postuan da talde bizkaitarra. Lehenedabiziko minutuetan gaitzen hasi zen etxeko taldea, baina azkenik, garaipena eskuratu zuen.

Bosgarren minutuan aurretik jarri ziren Tolosakoak Gorkak sartutako gol bati esker. Baina hortik gutxira berdinketa etorri zen. 30. minutuan Antxonon eskutik etorri zen gola. Etxekoek hasitako jokaldia emaitzea lortu zuen jokalariaik, hegaletik sartutako gol batekin. Hala, lehen zatia nahiko parekatua izan zen, eta lan go-

gorra egin zuten eskualdekoek. Bigarren zatian berriz, Tolosako jokalaria bat kalera bota zuen epaileari zerbait esateagatik. Ondorioz, hortik aurrera 10 pertsonekin jokatu behar izan zuten. Jokaldi berean, bi eta batekoa ezarri zuten bizkaitarrek, hau izan zelarik partidak azken emaitza.

Asteburuko partidaren on-

doren sailkapeneko 16. postuan da Tolosa. Hurrengo norghegiagoka etxean jokatu dute. eskualdekoek, eta Eibar B izango dute aurkari. Ohikoa den bezala hurrengo partida ere 16:30ean izango da, eta Berazubini jokatu dute. Eibarrek sailkapeneko 9. postuan daude, eta Kepa Mendizabal Tolosako entrenatzailearen esanetan, «partida zaila bada ere, atera daiteke».

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Zerbitzaria.** Neska euskalduna eskaintzen da zerbitzari lanetarako. Egurduetan, astelehenerdik ortiralera arte. Interesatuak deitu 695 75 7045 telefono zenbakira.

**Zerbitzaria.** Pertsona bat behar da Tolosako taberna batean lan egiteko. 615 78 90 06.

**Gidaria.** Egurretan ibiltzeko boxerra

behar da. Deitu 626 71 46 96 telefono zenbakira.

**Gitarra jolea.** Erromeri talde batek gitarra jolea behar du. Interesatuak deitu 665 70 17 75era.

**Zerbitzaria.** Mutil euskalduna eskaintzen da zerbitzari bezala taberna edo sagardotegietan lan egiteko, edota beste edozein lanetarako. 619 53 73 02.

## SALGAI

**Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Telefono zenbakia: 615 75 57 62.

## EROSTEKO

## Jaunartzeko soinekoa.

Jaunartzeko soinekoa erosiko nuke. Interesatuak deitu 652 72 04 62 telefono zenbakira.

### ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Irudietan.** Gure eskualdeetako jai eta ekitaldi ezberdinak argazkiak daude ikusgai, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean. Sartu eta ikusi!

KIROLAK ▶

## Emaitza onak eskualdekoek Gipuzkoako Taldekakoan

Larunbateko bigarren txandan, berdinketa bat eta garaipen bat lortu zituzten

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Taldekako Xake Txapelketako bigarren txanda hasi zen pasa den larunbatean. Herriko bi taldeak Zaratzen lehiatu ziren, lehena Zarautz A-ren aurka, eta bigarrena, berriz, Zarautz C-ren aurka. Lehenek berdinketarekin konformatu beharra izan zuten, eta bigarren taldeko jokalariek, berriz, garaipenarekin bueltatu ziren etxera.


Xake taldekoen iritziz, «norgehiagoka gogorra lehen taldeak zuen dudarik gabe», Zarautz A taldea mailako liderra baitzen eta txapelketa irabazteko faborito argiteko bat, gainera. Azkenean, bina egin zuten, S. Etxeberriak eta M.M. Barojak lortutako puntuei esker. Lehenak aurkariaren akats bat baliatu eta abantaila lortu zuen oso azkar. Hortik aurrera sendo jokatu eta ez zuen arazorik izan puntua eskuratzeko. M.M. Barojak «sekulako errepassoa» eman zion bere aurkariari, «xakean nola jokatu behar den erakutsiz».

Eskualdeko beste taldeari dagokionez, «gauzak ezin hobeto joan zitzaizkion». 0-4 irabazi zuten eta lehen postuetan dira orain. Zaratzen lehen urtea dute hirugarren mailan eta berain esperientzia falta nabarmen geratu zen. D. Moreau, J. Mendia, B. Salbarredi eta A. In-txaurrendok erraz irabazi ahal izan zieten beren aurkariari.

EKONOMIA ▶

# LABen ustez, 2006a «larria» izan da lan istripuei dagokionez

Izan ziren istripuetan, langile bat hil zen eskualdean; konzentrazioa deitu dute biharko, «egoera salatzen»



INSHT, INSL, Osalan eta ATAk eskainitako datuak, EAE, Nafarroa eta Iparralde kontuan hartuta.

ERREDAKZIOA

2006a «urte larria» izan zen lan ezbehar kopuruari zegoen LAB sindikatuaren iritziz. Eman dituzten datuen arabera, baja behar izan zuten 66.465 istripu izan ziren, bat 8 minutuan behin, gainera, horietako 537 larriak izan ziren, eta 129koa izan zen hildako langileen kopurua (93 EAEn, 30 Nafarroan eta 6 Iparraldean). Eskualdeko datuei dagokionez, lan istripuen ondorioz 37 urteko langile bat hil zen iragan ekainean Gaztelun. Hala, «egoera salatzen diren», konzentrazioa egingo dute biharko, Triangulo plazan 19:30ean.

LABek adierazi duenez, azken urteetan izandako lan istripu orokorrak eta heriotza eragin dutenak ez dira ia-ia batere murriztu; «biziki asaldagarriak dira eskuarteetan ditugun da-

tuak eta erantzun sozial eta politiko zabala eskatzen dute».

Sindikatuaren ustez, lan istripuak eta gainerako osasun galerak lan egitea behartzen gaituzteneko baldintzen ondorio eta prekaritatearen ondorio dira, aldi baterakotasunarena, eta arau bezala azpikontratuak egitearena, hain zuzen; «lanera joatea arrisku faktore bihurtzen ari da, bai gure osasunarentzat, baita gure bizitzarentzat ere; adibide bezala, Euskal Herriko aldi baterakotasun maila Europakoaren bikoitza dela esan dezakegu eta istripu kopurua ere bikoitza da. Horrek argi adierazten du lan baldintzak istripu guztien oinarriko arrazoi direla».

Egoera honek arrazoi eta arduradunak dituela dio LABek. «Alde batetik, patronalarentzat lan arriskuen prebentzioa gutxi da, horregatik, ez du ezer

egiten. Patronal diruzalearen aurrean gaudenez, garrantzi handiagoa ematen diete epe laburrean lortutako irabaziei langileen beraien bizitzetako baina. Eta beste alde batetik, arazo larri honen aurrean beste alde batera begiratzen dute administrazio publikoek, langileen sarraskiaren konplize bihurtuta».

Egoera honen aurrean, sindikatuak «gure osasunaren eta bizitzaren alde» aurrerapausoak ematen jarraitu nahi duela azaldu du. Bai enpreetan, bai kalean, Tolosan biharko egingo dute bezala mobilizazioak egiten eta egoera salatzen jarraituko dutela adierazi dute, izan ere, «lan istripuak ezbehar soziala dira, eta ondorioz, sozialki erantzuna eman behar dugu: nahikoa da gure osasunaren aurka aritzearekin euro eskukada baten truke».

GIZARTEA ▶

## Bularreko minbiziaren garaz detektatzeaz

Katxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbiziaren dutean Emakumeen Elkarteak antolatuta eta Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako sailak lagunduta, biharko Bularreko minbiziaren garaz detektatzea hitzaldia eskainiko du Donostiako Institutu Onkologikoko Lourdes Aritzituri doktoarek. Hitzaldia Kultur Etxean izango da, 17:00etan.

ELKARTASUNA ▶

## Bikarte elkartearen hitzaldia, biharko

Ume errusiarren harrera familietan hartu eta euren osasuna sendotzea helburu duen Bikarte elkarteak udako kanpaina hasi du. Hala, kanpaina azaltzeko hitzaldia eskainiko dute biharko, Kultur Etxean, 20:00etan.

AISIA ▶

## Inauterietako txaranga bilera, biharko

Inauterietako txaranga bilera egingo dute biharko. Kultur Etxean izango da 19:30etik aurrera.

AISIA ▶

## Zaldunita bezperako entseguak

Zaldunita bezperako danborradako entseguak otsailaren 6an, 7an, eta 8an, Kultur Etxeko areto nagusian izango dira 20:00etan, eta otsailaren 13an, 20:00etan Musika Eskolan, Bandarekin.



Deliak utzitako argazkiak. Egilea: Angel Ruiz de Azua.

[www.eginbehardugu.com](http://www.eginbehardugu.com)



HERNIALDE ▶ ERAKUSKETA

# Santa Kruzek erakartzen jarraitzen du

Apaiz ezagunari buruzko argazkien erakusketa antolatu dute Ostatuan

IMANOL GARCIA


Hernialdeko Ostatuan erakusketa berri bat ikusteko aukera dago. Ez da baina, orain arte egindakoen antzekoa, koadroak ez, Santa Kruz apaizaren inguruko argazkiak erakusten baitira. Manu Iurrita Ostatuko arduraduna harrituta dago erusketak izaten ari duen harrez. «Leku askotatik etortzen ari da jende ugari erakusketa ikustera, Legazpitik, Oartzundik...», dio. «Ez du gauza handirik, Santa Kruz apaizak Kolonbian sortu zuen herriko argazkiak eta berarekin lotutakoak». Bi hilabete inguru izango da ikusgai.

Carlos Arrizabalaga benediktar lazkaotarrak proposatu zion Iurritari erakusketa egitearena. Kolonbiako San Inazio herriko argazkiak atera zituen. Hango etxeetakoak eta elizarenak, Santa Kruz apaizaren hilobikoak, ospakizunetan erabiltzen zuen estandarrea... Zenbait bisitari, gainera, informazio gehiago eramaten ari dira, erakusketa osatuz.

## Bi koadro berezi

Santa Kruz apaizak protagonismoa badu ere, erakusketa aprobetxatuz Manu Iurritak

Fray Alvarez de Eulate margolariaren bi obra jarri ditu ikusgai. Iurrita berarenak dira eta biak egurraren gainean egindakoak dira. *Urbiako kanpak* izena du batek eta egurra tailatuta dago eta ondoren margotuta. Besteak *Aizkorritik begira* izena du eta egur gainean margotuta dago. Alvarez de Eulatek ibilbide oparoa du artista bezala. Besteak beste, Jorge Oteizarekin batera egin zuen lan Arantzazuko hamahiru apostuluen eskulturaren.



Santa Kruz apaiza. Santa Kruz apaizaren inguruko hainbat irudi daude erakusketan. HITZA



Fray Alvarez de Eulate. *Aizkorritik begira* eta *Urbiako kanpak* koadroak ikusgai daude Hernialdeko Ostatuan. HITZA

IKAZTEGIETA ▶ TXIRRINDULARITZA

# Leire Olaberriak brontzea eskuratu du

Munduko Kopan puntuazioan podiuma zapaldu du, jazarpenean 12. eta scratch-ean, berriz, 10. postua egin du

NEREA URBIZU

Leire Olaberria pistako Munduko Kopan izan da asteburu honetan. Kasu honetan, Munduko Kopako hirugarren txandak izan da, Los Angelesen —AEB—, Bertan hiru proba egin ditu: larunbateko puntuazio proban brontzea eskuratu zuen, igandeko jazarpenekoan, berriz, 12. postua lortu zuen.

Atzo scratch-a egin zuen, Los Angelesen egin beharreko azken proba, hain zuzen, eta honetan ere ongi aritu zen ikaztegiatarra, 10. egin zuen. Emaitza hauek lortzearekin sailkapen nagusian 9. da Olaberria. Eliteko kirolaria prestatzen aritzen den esanetan, «oso ondo aritu da, batez ere oso erregularra izan delako. Iazko Munduko Kopan 11. eta 12. izan zen, eta aurten 8. eta 9. da». Kontuan izan behar da ere «gero eta zailagoa dela, gero eta emakume gehiagok hartzen duelako parte eta maila altuagoa delako».

Puntuaziokoan 2 sprint irabazi zituen: guztira 10 puntu, munduko 2 onenariokoen atzetik; Sarah Hammer eta Yoanka Gonzalezen atzetik. Aitor Alonso taldekideak, aldiz, 6. postua lortu zuen scratch-eko finalean.

Munduko Kopako hirugarren txanda honetan parte-hartzea izugarria izan da: 272 txirrindulari (64 emakume eta 188 gizon) eta 52 talde.

Jazarpenekoan 3 kilometro-



Leire Olaberria, Munduko Kopako proba batean. HITZA

ak 3 minutu eta 53 segundotan egin zituen: adituen arabera, «Olaberriarentzat denbora oso ona da belodromoaren ezaguerriak aintzat hartuta».

Cespa-Eustrak taldeko kide duen Unai Elorriagak puntuazioko proba egin zuen eta 7. geratu zuen. Arratsaldean, finalean zela eta 6. zela, Llanerasen atakeaz ez zen jabetu eta azkenean 13. bukatu zuen.

Hauek izan dira emakumeen artean irabazleak: Lisandra Guerra kubatarra 500 metro-

koan garaile izan da Sarah Hammer-ek jazarpenekoan irabazi du, eta taldekako abiadurakoa Holandak irabazi du.

## Larunbatean Tafallan

Datorren larunbatean Leire Olaberria Tafallan ariko da Euskadiko selekzioarekin batera, pistako Espainiako ligan, hain zuzen. Momentuz, gaur gaua aldera iritsiko da Euskal Herrira, eta merezi duen atsedena hartuko du.

ALEGIA ▶ IKASTAROKAK

## Ordenagailu bidezko argazkigintza, otsailean

Kultur eta Kirol Etxean izango da ikastaroa

ERREDAKZIOA

Alegian Kutxak antolatutako pilates, makillajea eta larruazalaren zainketa, eta sukaldaritza begetarianoaz gain, Cebanc Cd-a eta Alegiko udal-letxeak antolatu duten beste bat abiarazi dute: ordenagailu bidezko argazkigintza eta argazki-ukitua, alegia.

Aralar DBHko institutuan izango dira eskolak asteazke-

netan, 18:00etatik 20:30era, eta lehen eguna otsailaren 7a izango da, maiatzaren 2ra arte.

Prezioa 30 eurokoa da, eta izen-ematea hilaren 31ra bitarte egin daiteke Kultur eta Kirol Etxean bertan.

Bestalde, Kutxak antolatu dituen ikastaroetan izena emateko epea gaur bukatuko da; izena ere Alegiko Kultur Etxean eman behar da.

ALTZO ▶ IKASTAROKAK

## Pintxoak egiten ikasteko

Miniaturan eginiko sukaldaritza egingo dute

ERREDAKZIOA

Altzon Cebanc Cd-a profesionalentzako formazioaz arduratzen den eskolaren bitartez, *Miniaturan eginiko sukaldaritza: pintxoak eta kazolaxoak* izeneko ikastaroa jarri nahi dute martxan. Ikastaro hau 8 astetako izango da, astero saio bat bi ordu eta erdiz.

Otsailean hasi nahi duten ikastaro honetako helburuak hauek dira: ostalaritza eta nekazaritza-turismoa bultzatzen laguntzea, ongizate pertsonala eta komunikazioa hobetzea beharrezko heziketa ematea eta Euskal Herriko gastronomia-kultura hobetzen laguntzea.

Ikastaroa 20 euroren truke izango da eta gutxienez 25 urte izan behar dira izena emateko. Taldean gutxienez



Pintxoak prestatzen. HITZA

10 lagun beharko dira eta interesatuta dauden guztiak udaletxean bertan dagoen izen-emate orria beteaz ikastaroan parte hartu ahal izango dute, beti ere, otsailaren 2a baino lehen. Eguna eta egutegia oraindik zehaztu gabe daude.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behean  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: ernio@inmoernio.com  
www.inmoernio.com

**Anoeta.** Duela gubiko eraikuntzan duplexa salgai. Garaje itxia aukeran. Oso egoera onean.

**Amezketza, Berastegi, Hernialde, Tolosa eta Zizurkil.** Hainbat etxe bifamiliar eta atxiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.  
**Berrobi.** 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta bi trasteleku. Igogailua jartzeko proiektuarekin.

**Ibarra.** San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin.

**Ibarra.** Euskalerra kalea. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Oso egoera onean.

**Irura.** Etxezarreta. 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

**Irura.** Labadero, 100 m<sup>2</sup>. 3 logela, sukaldia, egongela eta 2 bainugela.  
**Legorreta.** Trasteleku salmentan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

**Tolosa.** Berazubi. Igogailu proiektua onartuta. 228.384 euro.

**Tolosa.** Eraikuntza berri hainbat etxebizitza salgai. Bi, hiru eta lau logela aukeran. Garajeekin.

**Tolosa.** Beotibar. 36 m<sup>2</sup>. Altua, 150.000 euro.

**Tolosa.** Zumalakarregi. 98 m<sup>2</sup>ko pisu zoragarria salgai. Ikuspegi ezin

hobeak. Estreinatzeko. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Zumalakarregi. 92 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berrituta eta estreinatzeko. Garajearekin.

**Tolosa.** La Estrella. Etxebizitza salgai oso egoera onean. Igogailuarekin eta garajearekin.

**Tolosa.** Pedro de Tolosa. 83 m<sup>2</sup>. Distribuzio era ezberdinak. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Kondeaneko aldapa. 2 logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Igogailuarekin.

**Tolosa.** San Frantzisko. 50 m<sup>2</sup>ko apartamentu berritua salgai. Igogailu, berokuntza eta garajearekin.

**Tolosa.** SAM. Iskineko etxe atxikia salgai. Porxe eta guzti dauka.

**Tolosa.** Pedro de Tolosa. 125 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso ona. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Erabat akondizionatutako 120m<sup>2</sup>ko lokal-bulegoa alokatzen da. Zonalde bikaina. Egoera ezin hobea. Oso argitsua eta leiho handiekin. Aire girotua. Egokia edozein bulegorako, mediku kontsultarako, delegazientzat.

**Zizurkil.** Etxe atxikia salgai. Terrazarekin eta lorategiarekin. Ezin hobeto. Orientazio bikainarekin.

**Hernani.** Akarregi. Errepidearen aldamenean. 385 m<sup>2</sup> dituen pabilioi industriala salgai. Estreinatzeko.

## IBARRA ▶ KULTURA

MADDI SOROA

Tolosaldeko Mankomunitateak *Amesgaiztorik ez!* izenburupean hiri hondakinen inguruko erakusketa jarri du abian Ibarako Kultur Etxean. Erakusketa ostiralera arte izango da zabalik 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

Erakusketak bost gai multzo biltzen ditu, multzo bakoitzean hondakinaren arlo bat lantzen delarik, orokorretik zehatzera edota iraganetik etorkizunera. Gai multzo horiek, *Hondakinen egungo egoera*, *Etxeko hondakinak*, *Hondakinen egungo kudeaketa eta tratamendua* eta azkenik *Nola iritsi gara egoera honetara?* lirareteke.

Bestalde, jarduera osagarriak ere eskaintzen dituzte bertan, hiru tailerretan parte hartuz. «Norberaren ahaleginak beste pertsona batzuen ahaleginarekin batera edozein helburu lortzeko aukera dagoela» konturatzen da bisitaria.

Gemma Eceiza Tolosaldeko Mankomunitateko teknikariak esandakoaren arabera, «erakusketaren helburua norberari erreflexiorako bidea sortzea da, kontsumo arduratsua bul-

# 'Amesgaiztorik ez!' erakusketa, gauzak aldatu ahal izateko

«Konponbidearen zati bat gizartearen esku» dagoela ohararazi nahi dute hiri hondakinen erakusketarekin



*Amesgaiztorik ez!* hiri hondakinen erakusketa ostiralera arte egongo da ikusgai Kultur Etxean. MADDI SOROA

tzatuz eta jendeari ikustaraziz hiri hondakinen inguruko arazo gizartearena izan arren, gizartearen beraren esku dagoela konponbidea».

Etorkizunari begira, «konponbidea zaila izan arren posible dela» azaldu du Gemma Eceizak. Aldi berean, Gipuzkoako Plana gogorarazi du etorkizunari begira lanean diharduten proiektu gisa. «Urtetik urtera jende gehiagok birziklatzen duen arren, zaborteagietan oraindik ere birziklatu daitezkeen elementu asko» daudela adierazi du Tolosaldeko Mankomunitateko teknikariak. Hori dela-eta «erakusketa honekin jendeari erakustarazi nahi diogu konponbidea denon esku dagoela».

Hiri hondakinen inguruko erakusketa Tolosaldeko Udalak Agenda 21aren barnean sorturiko ekimena da. Mankomunitateko edukia lantzen dituzenez, ordea, Tolosaldeko Mankomunitateak Ibarra eraman du. Erakusketa ibiltaria da beraz, Gipuzkoako edozein herritarra joan daiteke informazio panelak eskualde bakoitzera egokitzen baitira. Hurrengo bisita Villabona izango da.

## IBARRA ▶

## IV. Garagardo Azokako bilera gaur 19:30ean Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Ibarako talde ezberdinek IV. Garagardo Azoka antolatuko dute urtero legez maiatza aldera. Horretarako, antolakuntzatik «herriko elkarte guztiei parte hartzeko eta laguntzeko» deialdia zabaldu dute. Azokaren inguruan mintzatu eta antolakuntzan hasteko bilera izango da gaur 19:30ean Ibarako Kultur Etxean.

## IBARRA ▶ POLITIKA



## Ezker abertzalea hautagai

**Erredakzioa** ▶ Ibarra ezker abertzaleak agerraldia egin zuen joan den ostiralean «maiatzeko udal hauteskundeetan bertan» egongo dela eta «dagoeneko lanean» hasi direla adierazteko. Oraingo, herriko diagnostikoa eta herri programa landu dituzte «asetu beharreko beharrak ezagutzeko». Bestalde, [www.orainibarra.net](http://www.orainibarra.net) bloga sortu dute sarean herritarren iritzia eta ikuspuntuak jakin eta bertan jasotakoak «udaletxera eramaten saiatzeko». MADDI SOROA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

# Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

## ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

[tolosaldean@tolosaldecohitz.a](mailto:tolosaldean@tolosaldecohitz.a)



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## PILOTA BINAKAKO TXAPELKETA ▶



Bengoetxea VI.a Errastiren profesional mailako azken partidari. E.EZEIZA

# Ruiz eta Bengoetxea VI.a sasoi betean eta indartsu, galdu arren

Partida hasieran norgehiagoka orekatua izango ez zela zirudien arren, Irujok eta Goñik nekez irabazi zuten

NAIARA GARZIA

Joan den larunbatean Bengoetxea VI.ak eta Ruizek Martinez Irujo eta Goñi III.aren aurkako partida Binakako Txapelketa-aren barruan jokatuak onena izan zen. Bikote gorria irabazten hasi arren, bikote urdinak partidari buelta eman zion eta baita berdinketa lortu ere, baina azkeneko momentuan galdu egin zuten.

Irujo indartsu hasi zen, bost minututan sei tanto jarraian egin baitzituen, eta ez zirudien norgehiagoka orekatu samarra izango zenik. Markagailua 7-0 gorrien alde zihoanean — partidako alderik handiena —, partida aldatzen hasi zen. Bengoetxea VI.ak tanto politak egin zituen, markagailuko alde nabarmen txikituz.

Ondoren, Ruizek ukitu ez zuten pilota batek talde urdina-

ri tantoa eman eta Bengoetxea VI.ak eta Ruizek behera egin zuten. Iberotarrak ederki aprobetxatu zuten egoera, 16-10 arte ihes egiteko.

18ko berdinketa lortu ondoren, galdu egin zuten talde urdinak. «Irujo oso bizkor hasi zen. Gero gu pixkanaka jokoan sartzen hasi ginen. Partida oso gogorra izan zen, tentsio handiarekin jokatuakoa», adierazi du leitzarrak.

## LEITZA ▶

## Aurrerako pilotarien bost partida, kanpoan

Nafar Jokoen baitan herriko pilotariek 5 partida jokatu zituzten larunbatean. Mikel Sagastibeltzak eta Anartz Olanok Lizarran irabazi egin zuten, baita Iker Sagastibeltza eta Josu Zabaletak ere, burlartarren aurka aritu baitziren. Joxerra Aldaregia eta Xabier Jaunarena ere huartetarren aurka gailendu ziren. Ander Escuderok eta Mikel Erasok, berriz, Iruñean galdu egin zuten, baita Oinatz Mariezkurrenak eta Iñaki Saralegik ere, Burlatan.

## LEITZA ▶

## Rekondo Urrezko Aizkoran aurrera

Igandean Jon Rekondo leitzarrak eta Ander Erasun aurtiztarrak Larretxea lehen-gusuen aurka irabazi egin zuten. Hau dela eta, Rekondo eta bere laguna jada finalerdietarako sailkatu dira, baina hala ere igande honetako norgehiagoka ere jokatu beharko dute. Rekondok azaldu duenez, «lehenengo talde honetan aurrenekoak geldituko ginela pentsatzen genuen». Bost proba gaititu behar izan zituzten, eta haue-tatik 4 irabazi zituzten.



Jon Rekondo aizkolaria. J. ASTIBIA

## LEITZA ▶

## Aurrerak puntu bat lortu du Iruñean

Joan den larunbatean Aurrerak puntu bat bereganatu zuen Universidad de Navarraren aurka, 3-3ko berdinketa lortu baitzuen. Saikapenean bigarrenak doaz, San Cristobalen ondoren. Partida amaitzeko 15 minutu falta zirenean jokoazainak Aurrerako futbolari bat bota zuten. «Partida nola joan zen ikusita, eta bukaeran izan genuen arazoa kontutan hartuta, puntu bat lortu izana on-tzat ematen dugun», dio Aurrerako arduradunetako batek.

# hitza

# Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun! ▶

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetan  
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

kanikak  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

ILUMINAZIOA

SHANTI KINOLAK  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

Avalon  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

MUGAR  
Nafarroa etorb., 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR  
ONINAKOAK  
Arostegietako kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Anoeta.** Alkartasuna jubilatuen biltokiko tabernajatebearen ardura hartu nahi duenak, udalxean eska dezake informazioa.  
**Berastegi.** Otsailaren 3an podologoaren bisita izango da Gaztainondo elkartearen. Interesatuak izena eman dezakete Gaztainondon edota honako telefono zenbakian: 943 68 32 02.  
**Berrobi.** Hilaren 29an podologoaren bisita izango da Berrobi 15:30etik aurrera. Interesatuak hilaren 24ean hartu beharko dute txanda udaltxeko bulegoetan edo 943 68 32 94 telefono zenbakian.  
**Ibarra.** Otsailaren 3an izango da Sendi Ekintzako sagardotegi afaria proiektzio eta herri kantuekin, 21:00etan. Txartelak salgai daude Familia Gurasoen eta Zubiaurre tabernetan.  
**Tolosa.** Zainketa klinikoak eta asistentzialak, haur eta nerabeen zaindariak, optika, ebtxeko laguntza, geriatria, inmugrazio teknikari laguntzailea. 200 ordu teoriko eta 100 praktikito. Inmakulada ikastetxea: 943 673629.  
**Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete Aranburu Jauregian.  
**Villabona.** Jesusen Bihotza Ikastolaren Kultur Astearen barruan, haur jaialdia izango da Gurea zineman 17:15ean, Lehen Hezkuntzako ikasleen partaidetzarekin.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
 Tolosa. Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

**IRRATIA**

**Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).  
 20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.  
 21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

# Ingelese ere trebeak

**TOLOSA ▶** Ikastolen Elkarteak Erresuma Batuan jaso zuen saria dela-eta Laskoraingo ikasleek ingelesezko antzezpena egin zuten gurasoen aurrean

**ERREDAKZIOA**

**D**uela hiru hilabete Ikastolen Elkarteak sari bat jaso zuen Erresuma Batuan, bere eleantiz proiektuarengatik. Sari hau jasotzeko Laskorain Ikastolako ordezkarrien artean sortu zuen «poztasuna» gurasoekin partekatu nahi izan zuten, eta horretarako «zer hobeto gure neska-mutilek antzeztan bat egitea baino gurasoen aurrean». Noski antzeztana ingelesez egin zuten eta gurasoak harriruta geratu ziren erabat beraien seme-alaben ingeles maila altuarekin; umetxoek, aldiz, hasierako urduritasunak berehala alboratu zituzten eta ederki igaro zuten.

Lehen aldia da Britainia Handitik kanpo egindako material didaktikoei sari hau ematen zaiena. Azken lau urteetan atzera eginez, Cambridge University Press, Oxford University Press eta ingelesezko hitzegiak egiten dituen McMillan argitaletxea izan dira, hurrenez hurren, sarituak. Aurten Gipuzkoako Ikastolen Elkarteari eman diote. «Ez da izan inondik ere sarian pentsatuta egindako CD-ROMa, aspaldidanik



Gaztekoek ederki igaro zuten antzeztanean, guraso eta ikasleekin begiradapean. HITZA

martxan dagoen proiektu baten barruan garatutakoa baizik», diote ikastolatik. Proiektu hau, Eleantiz-English alegia, 1991ean jarri zuten martxan 4 urteko ikasleekin modu esperimentalean zortzi ikastolatan. Egun, 73 ikastolek hartzen dute parte eta 25.000 dira ingeleza modu horretan ikasten ari diren ikasleak. Horietatik 2.000 azken fasean daude eta

Gizarte arloa ingelesez ematen ari dira Usabalgo egoitzan. Egin diren ebaluazioek arlo horretako edukiak bereganatzeko adina ingeles badakitela frogatu dute. English-Speaking Union fundazioa, bestalde, nazioarteko hezkuntza-erakundea da, 1918an sortua, «ingelesaren erabilerraren bidez nazioarteko ulermena eta adiskidetasuna»

sustatzeko. Erakunde independente eta ez-politikoak da, eta pertsonaia publiko asko eta oso ezagunen laguntzari esker dihardu, bai eta munduan dituen milaka eta milaka kideren laguntzari esker ere. ESU erakundearen sariak urtero ematen dira, ingeles hizkuntzaren eta ingelesaren irakaskuntzaren alorreko berrikuntzak eta ohitura onak saritzeko.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Oihana Agirreurreta Tobar (Alegia). Gaur 7 urte. Zorionak. Unai eta ebekoen partetik.

**BERRIRO ERE GARIREN URTEBETETZEA DALA ZORIONAK ETA BESARKADA BAT EGIN OHI DUGUN BEZELA FAMILI ZUHAITZA SENDO DAGO DENOI EGITEN ITZALA ADAXKA BAT HOR DABIL HEGAKA ASKATASUN LUR ZABALA ZORIONA ETA OSASUNA BEREKIN IZAN DITZALA**

**NAHIZ ETA URRUTIRA BEGIRATU ETA EZ IKUSTI GURE BIHOTZETAN EGONGO HAIZ BETI**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.**

**hitza**  
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**ZORIONAK!**  
 Gari. Urte askoan. Maite haugun guztion partetik.